

**2024RA LUZATUTAKO 2023KO
AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA
LURRALDE ANTOLAMENDUA

Programa: 920102 ERRONKA DEMOGRAFIKOA

**LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023
PRORROGADO PARA 2024**

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Programa: 920102 RETO DEMOGRAFICO

PROGRAMAREN MEMORIA

MEMORIA DEL PROGRAMA

I. MEMORIA

Honako hauek dira erronka demografikoaren programaren barruan garatu diren ekintza aipagarrienak:

1.- Landa harrotasuna piztu eta helarazteko estrategiak. Araba, bizi-bizirik dagoen lurraldea.

Zuzendaritzaren estrategia Arabako herritar guztiengan eta guztiei landa harrotasuna piztean eta helaraztean oinarrituko da: Hau da, landa gizarte bateko kide izatearen harrotasuna, gizarte horren garapenean eta etorkizunean parte hartuz.

Horretarako, "errealitate berria" deritzogunaren balioak balioesteko eta transmititzeko ekimenak sustatu eta babestu dira.

Beraz, landa harrotasuna ahalduzko programak diseinatzen, kudeatzen eta gauzatzen jarraitzea helburu duten proiektuak babestu dira. Programa horiek Arabako landa mundura irekitako leiho bat izango dira, eta landa eremuko elkarten eskutik lan egingo da, hala nola AKEren eskutik.

2.- Landa eremua suspertzeko plana, landatartasun berria.

Ikuspegi demografikoa eta teknikoa duten ekintzak egiteko jarduketak dira.

Horrela, Ikaslanekin eta Egibiderekkin lankidetzan jarraitu da, landa eremuan ekintzaileei laguntza ekonomikoa eta orientazioa emateko elkarlanean jarraitzeko.

Ildo horretan, landatartasun berri batera biltzearen ideia babesten jarraituko dugu. Aldaketak egiten jarraituko dugu honako arlo hauetan: landa lurraldea, hiriaren eta landaren arteko harremanak, herriak zerbitzu zentro gisa, nekazaritzakoak ez diren landa enpleguak eta kultura aniztasuna. Horregatik, landatartasun berri horretan lantokien proposamenak babesten jarraitzea planteatzen da.

I. MEMORIA

Las acciones más reseñables que se han desarrollado dentro del programa de reto demográfico son las siguientes:

1.- Estrategias para generar y transmitir el orgullo rural. Araba territorio lleno de vida.

La estrategia de la dirección se basará en generar y transmitir a todos/as los/as ciudadanos/as alaveses/as la esencia del orgullo rural. El orgullo de pertenecer a una sociedad rural participando en su desarrollo y en el futuro de la misma.

Para ello, se incentivan y apoyan iniciativas para poner en valor y transmitir los valores de lo que llamamos "la nueva realidad".

Por tanto, se han apoyado proyectos cuyo fin sea seguir diseñando, gestionando y ejecutando programas de empoderamiento del orgullo rural, programas que sean una ventana abierta hacia el mundo rural alavés, programas en los cuales se trabaje de la mano de asociaciones del ámbito rural tales como ACOA.

2.-Plan de reactivación rural, nueva ruralidad.

Se trata de actuaciones para la realización de acciones con perspectiva demográfica y técnica.

Así, se ha continuado colaborando con Ikaslan y Egibide con el fin de seguir trabajando conjuntamente para dar apoyo económico y orientación a emprendedores en el ámbito rural.

En tal sentido, también se seguirán apoyando las ideas que hablan de confluencia en una nueva ruralidad. Seguir progresando en un cambio en lo referente al territorio rural, de relaciones urbano-rurales, de pueblo como centros de servicios, de empleos rurales no agrícolas y de diversidad cultural. Por ello, se plantea seguir apoyando propuestas de centros de trabajo en esa nueva ruralidad.

2024RA LUZATUTAKO 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA
LURRALDE ANTOLAMENDUA

Programa: 920102 ERRONKA DEMOGRAFIKOA

3.- Jarduketak Trebiñun.

Burgosko Diputazioarekin sinatutako esparru akordioan oinarrituta, Argantzongo Udalarekin eta Trebiñuko Konderriarekin sinatutako hitzarmenei eutsi zaie, batez ere ekipamenduak eta azpiegiturak hobetzeko.

Horretarako, dirulaguntzak emango zaizkie udal horiei, ekipamendu eta azpiegituretako elementu txikiak kontserbatzeko, mantentzeko eta zaharberritzeko proiektuak garatzeko.

4.- Naturgolf SA

Arabako Foru Aldundia Naturgolf SA foru sozietate publikoaren parte da (% 99), Bernedoko eta Lagrango udalekin eta Urturiko Administrazio Batzarrarekin batera.

Izki Golf zelaia Arabako Mendialdeko Kuadrillaren azpiegitura garrantzitsuenetako bat da. Jarduera ekonomikoaren bultzatzailea da arrisku demografiko handieneko eremu horretan.

5.- Landa eremuan etxebizitza eskuratzeko proiektuak. Cohousing-coliving proiektua.

Gaur egun, landa eremuko gabeziarik handienetako bat salmentako edo alokairuko etxebizitzak aurkitzea da. Arabako landa eremuan, husten diren etxeak ez dira familiaren jabetzatik kentzen, urtaroko egoitza edo bigarren etxebizitza izatera igarotzen baitira. Horrek zaildu egiten du populazio berria finkatzea, eta, bereziki, oso zaila da gazteak finkatzea, batez ere emantzipazio prozesuan. Hirigintza arauak gainera ez dira oso onuragarriak etxebizitza parkea handitzeko, etxe handiak birgaituz eta bizitegi esparru txikiagoak bihurtuz.

Horregatik, beste herrialde batzuetan indarra hartzen ari diren bizimodu kontzeptu berrietara egokitu behar da, hala nola cohousing-a edo coliving-a.

Gure herri askotan kontzejuek eta udalek jabetza publikoak dituzte, eta horietako asko abandonatuta edo gutxiegi erabilia daude. Hori hasiera ona izan daiteke gure gazteentzako biziguneak egiteko. Ildo

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023 PRORROGADO PARA 2024

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Programa: 920102 RETO DEMOGRAFICO

3.- Actuaciones en Treviño.

Se han mantenido los convenios con los Ayuntamientos de La Puebla de Arganzón y Condado de Treviño destinados fundamentalmente a mejorar sus equipamientos e infraestructuras, en base al Acuerdo Marco suscrito con la Diputación de Burgos.

Para ello se concederán subvenciones a los citados ayuntamientos para el desarrollo de proyectos de conservación, mantenimiento y restauración de elementos menores de equipamiento e infraestructuras.

4.- Naturgolf S.A.

La Diputación Foral de Álava forma parte (99%), junto a los Ayuntamientos de Bernedo y Lagrán y la Junta Administrativa de Urturi, de la sociedad pública foral Naturgolf, S.A.

El Campo de Izki Golf es una de las infraestructuras más importantes de la Cuadrilla de Medialdea. Supone un vehículo tractor de la actividad económica de una de las zonas en mayor riesgo demográfico.

5.- Proyectos de acceso a la vivienda en el ámbito rural. Proyecto cohousing-coliving.

Actualmente una de las mayores deficiencias de la zona rural es encontrar viviendas ya sea en venta, ya sea en alquiler. En la zona rural alavesa, las casas que se vacían no son removidas de la propiedad familiar, ya que pasan a ser residencias estacionales o segundas viviendas. En particular esto dificulta fijar nueva población y en particular es muy difícil fijar a la población joven, sobre todo en el proceso de emancipación. Las propias normas urbanísticas no son excesivamente benévolas para permitir ampliar el parque de viviendas mediante la rehabilitación de grandes casas y su conversión en recintos habitacionales más pequeños.

Por ello es preciso adaptarse a los nuevos conceptos de vida que se están imponiendo en otros países como el cohousing o el coliving.

La existencia en muchos de nuestros pueblos de propiedades públicas de concejos y ayuntamientos, muchos de ellos en estado de abandono o de infrautilización, pueden representar buenos principios

2024RA LUZATUTAKO 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA
LURRALDE ANTOLAMENDUA

Programa: 920102 ERRONKA DEMOGRAFIKOA

horretan, ekimenak planteatu daitezke, hala nola cohousing edo coliving-a, Arabako landa eremu osorako, emantzipazio prozesuan dauden gazteei (jatorrizko familiaren etxetik irteera) eta adinekoei zuzendutako jarduketak gisa.

Sistema horiek egoiliarren arteko bizikidetzak eta lankidetzak errazten dute, bai eta ekipamenduen eta zerbitzuen zentralizazioa ere, eta, horrek azkenean, onura sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak dakartza.

6. Farmaziako produktuen banaketa.

Arabako Lurralde Historikoan bi eskualdek 12,5 biztanle/km²-ko dentsitateak behera dute, eta Europako Batzordeak maila horretatik behera uste du despopulazio arriskua dagoela. Arabako Mendialdea (dentsitatea: 5 biztanle/km²) eta Añana (9 biztanle/km²) dira. Añanako eskualdean 115 herrigune dago, eta 4 farmazia; Mendialdean, berriz, guztira 47 herrigune eta 2 farmazia.

Baldintzatzaile horiek guztiek agerian uzten dute beharrezkoa izan daitekeela arreta farmazeutikoa hobetzeko eta sendagaiak etxe etxe entregatzeko programa espezifiko bat ezartzea, Arabako bi eskualde horietako landa biztanleriaren beharrei erantzuteko. Arreta farmazeutikoak pertsonen atxikimendua eta bizi kalitatea hobetzen ditu, balizko larrialdiak eta ospitaleratzeak saihesten ditu, eta medikamentuen erabilera egokia eta arrazionala ahalbidetzen du.

2024an, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak komenigarritzat jo dute hitzarmen bat sinatzea, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta Arabako Foru Aldundiko Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Saila Arabako Farmazialarien Elkargo Ofizialarekin lankidetzan aritzeko baldintzak ezartzeko, Arabako Lurralde Historikoko Añana eta Arabako Mendialdeko eskualdeetako landa eremuko biztanleen farmazia arreta hobetzeko proiektu pilotu bat ezartzeko: «Botika etxean eskura».

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023 PRORROGADO PARA 2024

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Programa: 920102 RETO DEMOGRAFICO

para formalizar espacios de vida para nuestros jóvenes. Así, cabe plantear iniciativas en tal sentido, cohousing o coliving, desplegadas para toda la Álava rural como una actuación dirigida a la población joven en proceso de emancipación (salida del hogar familiar de origen) y a personas mayores.

Son sistemas que facilitan la convivencia y la cooperación entre los residentes, así como la centralización de equipamientos y servicios, lo que termina aportando beneficios sociales, económicos y medioambientales.

6. Distribución de productos farmacéuticos.

En el Territorio Histórico de Álava existen dos comarcas cuya densidad de población está por debajo de los 12,5 habitantes/km², que es el nivel por debajo del cual la Comisión Europea considera que existe riesgo de despoblación. Se trata de la Comarca de Montaña Alavesa (densidad de 5 habitantes/km²) y la Comarca de Añana (9 habitantes/km²). En la Comarca de Añana, donde existen 115 núcleos de población, hay 4 oficinas de farmacia, y en la Comarca de Montaña Alavesa hay 2 oficinas de farmacia para un total de 47 núcleos.

Todos estos condicionantes ponen de manifiesto la potencial necesidad de establecer un programa específico de mejora de la atención farmacéutica y de entrega de la medicación a domicilio para responder a las necesidades de la población rural de estas dos comarcas alavesas. La atención farmacéutica mejora la adherencia y la calidad de vida de las personas, evita potenciales urgencias e ingresos hospitalarios y permite un uso adecuado y racional de los medicamentos.

Durante el año 2024, el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Álava han visto la conveniencia de suscribir un convenio con el objeto de establecer las condiciones en las que el Departamento de Salud del Gobierno Vasco y el Departamento de Equilibrio Territorial y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Álava, colaboren con el Colegio Oficial de Farmacéuticos/as de Álava en la implantación de un proyecto piloto de mejora de la atención farmacéutica de la población del ámbito rural de las Comarcas de Añana y Montaña Alavesa del

2024RA LUZATUTAKO 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA
LURRALDE ANTOLAMENDUA

Programa: 920102 ERRONKA DEMOGRAFIKOA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023 PRORROGADO PARA 2024

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Programa: 920102 RETO DEMOGRAFICO

7. Beste dirulaguntza izendun batzuk.

Arabako Batzar Nagusiek uztailaren 10eko 10/2024 Foru Araua onetsi zuten, 2024rako indarrean dagoen aurrekontuaren neurri osagarriari buruzkoa. Araudi horrek Arabako Lurralde Historikoaren 2024ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorretan jasota ez dauden jarduketak egiteko neurriak jasotzen ditu, finantzatzeko kreditu gehigarria behar dutenak.

Zehazki, uztailaren 10eko 10/2024 Foru Arauaren I. eranskinean, Mañuetako Udalarentzako zuzeneko laguntza bat jasotzen zen. Kaia jartzeko laguntza, 60.000,00 eurokoa, eta Bastidako Udalarentzako beste zuzeneko laguntza bat, 150.000,00 eurokoa, herriko haurreskola egokitzeko. Bi dirulaguntza horiek 2024ko ekitaldian gauzatu ziren aurrekontuan.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

Jarduera guztiak erabat bete dira.

Territorio Histórico de Álava, denominado “Botika etxean eskura”.

7. Otras subvenciones nominativas.

Las Juntas Generales de Álava aprobaron la Norma Foral 10/2024, de 10 de julio, de medidas complementarias al presupuesto vigente para el 2024. Esta normativa contiene medidas para la realización de actuaciones no contempladas en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Álava para el ejercicio 2024, que precisan de crédito adicional para su financiación.

En concreto, en dicho anexo I de la Norma Foral 10/2024, de 10 de julio, figuraba una ayuda directa al ayuntamiento de Baños de Ebro. Ayuda para la instalación del muelle, por importe de 60.000,00 euros, junto con otra ayuda directa al ayuntamiento de Labastida, por importe de 150.000,00 euros para el acondicionamiento de la Haurreskola de la localidad. Ambas subvenciones fueron ejecutadas presupuestariamente en el ejercicio 2024.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

El grado de cumplimiento en todas las actuaciones ha sido total.